

INGURUMENAREN GETXOKO UDAL-FOROAK 2004KO EKAINAREN 24AN EGINDAKO BILERAREN AKTA

LEHENDAKARIORDEA:

FERNANDO BURZAKO jn., Ingurumeneko zinegotzia

IDAZKARIA:

ARANTZA CABEZA and.

INGURUMENENKO TEKNIKARIA:

JOSU ATEKA jn.

INGURUMENENKO AHOLKULARIA: (Ingurune)

JULEN REKONDO jn.

ETORRI DIRA:

JOSE ALMEIDA jn. Getxo Enpresa eta Merkataritza.

ARANTZA TORRES CUESTA and: Bizkel

ALFRED LLORENTE jn: Basozaleak (Getxoko Mikologia eta Botanikako Elkarte)

KOLDO NABASKUES jn (Urkoa, Kontsumitzaile Elkarte)

CARLOS ARANA ERHARDT jn: Fegevol (Getxoko Elkarteen Federazioa)

JOSE LUIS GONZALEZ jn. : Fegevol

JOSE M^a GOROSTIAGA jn (EHU. Landare-biologia eta Ekologia)

LINO ASTORBIETA jn (Ekologistak Martxan)

PATXI DIAZ jn (Ibilbide Ekologikoak)

CONCHI MIGUELEZ MORAN and. (Larrañazubi Ikastetxeko irakaslea)

CARMEN ESTRADA and. (Itxas Argia)

XABIER BUENETXEA ARAGUES jn. (Ingurumeneko aditua)

CARLOS MATA : Lanus.

Algortako Kultur Etxean, 2004ko ekainaren 24an, Ingurumeneko Tokiko Foroa bildu da. Aipatu diren pertsonak etorri dira.

Lehendakari jaunak, legezko kide kopurua dagoela ikusita, batzarra hasitzat eman du, eta deialdiko aztergaien zerrendako gaiei ekin zaie. Hauxe izan da emaitza:

AZTERGAIEN ZERRENDA

1.- AKTAREN ONARPENA

Administrazio-arazoak zirela-eta ezin izan zen aurreko Akta garaiz aurkeztu; beraz, hurrengo deialdian onartzea erabaki zen.

2.- GETXOKO JASANGARRITASUNAREN INGURUKO 2004-2007 EKINTZA-PLANAREN AURKEZPEN LABURRA

Ingurune Aholkularitzako Julen Rekondok arestian aipatutako planaren aurkezpena egin du power point bidez; bertan, planaren helburuak, egitura eta edukiak aurkezteaz gain, Estrategia-lineak, Egitarauak-eta Ekintzak, ekintzon oinarrizko ezaugarriak eta beraien deskripzio-fitxei buruzko azalpenak ere eman ditu.

3.- EZTABAIDA-METODOLOGIAREN AZALPENEA

Getxoko Udaleko Ingurumen-Teknikari Josu Atekak, Getxoko Jasangarritasunerako Ekintza Plana aurrera eramateko eztabaida-metodologia azaldu du; eztabaidatzeko metodologia honen arabera, gai-zerrenda bera landuko luketen taldeak sortuko lirateke. Bileran horretan eztabaidatuko lirateke, hain zuzen ere, 2.Estrategia-Linea (“Udaleko balio naturalak, bioaniztasuna eta paisaia bere horretan mantentzea”) 4. EL (“Mugikortasun iraunkorra bultzatu eta garraio publikoa indartu”), 5.EL (“Urhorniketaren kudeaketa optimizatu”), 6.EL (“Udal-hondakinen birziklatzea bultzatu eta sustatzea”) eta 7.EL (“Udaleko energia-kudeaketa optimizatzea”).

Behin talde bakoitzean eztabaidatu eta gero, osoko bilkuran aurkeztu, eta azken hau izango litzateke erabakiak hartzearen arduraduna.

4- EZTABAIDAREN GARAPENA

Ondoren, 3 lan-talde sortu dira; hona hemen beraien eraketa:

A Taldea: Carmen Estrade
Jose Luis González
Carlos Mata
Alfredo Llorente
Koldo Nabaskues
Julen Rekondo

B Taldea: Carlos Arana
Patxi Díaz
Conchi Miguelez
Arantza Torres
Xabier Buenetxea
Josu Ateka

C Taldea: Fernando Burzako
José Almeida
Lino Astorbieta
Txema Gorostiaga
Arantza Cabeza

Hona hemen eztabaidak izan eta gero talde bakoitzak adierazitakoa:

A TALDEA :

- Lehenengo eta behin, itsasertza zer den definitzea: hondartzez gain, bere inguru guztia ere bai, labarrak barne.

Eskumenei dagokienez zehaztapena falta dago: zein gai dagozkio kostaldeko sailari eta zein udalari; eskumenok zehaztuta egon ezker, jarraipen bat egin beharko litzateke.

P.2.1. Interesdun Naturguneak babestu eta berreskuratzeko programa.

- Beharrezkoa da hondartzen kartografia zein hauen ingurunearena egitea; baita ibai-arroena ere, Gobela ibaiarena barne.
- Gazte, haur, eskola-ume zein helduei zuzenduriko informazio-planak sartzea.

P.2.2. Itsaso-ekosistemak babesteko, hobetzeko eta sustatzeko programa.

- "Sustatzeko" hitza kendu eta bere ordeaz berreskuratzeko jartzea.
- Herritarren balorazioari gehitzea: bidezidorrak, aisiarako eremuak, Bolue eta hondartzak, itsasertzeko eremua, labarrak eta labar-aurrekoak.

P.2.3. Itsasertzeko ingurumena babesteko, hobetzeko eta sustatzeko programa.

- Hondartza- eta labar- inguruetara edozein motatako ibilgailuak gutxitzea.
- Metrotik eta aparkalekuetatik anezka gisa erabiliko litzatekeen garraio publikoaren zerbitzu handiago bat lortzeko programa diseinatzea.

B TALDEA:

P.2.1. Interesdun Naturguneak babestu eta berreskuratzeko programa.

- Bolu-eremua zin den finkatzea, bizikletaz egiteko ibilbidea erraztea eta oinezkoei zein bizikletei sarrera erregulatzea; zaintza eta kontrola.
- Kartografia interesdun naturgune guztietara zabaltzea.

P.2.2. Itsaso-ekosistemak babesteko, hobetzeko eta sustatzeko programa.

- Kartelak jartzearen aldekoak.
- Beharrezkoa da bisitarien sarbidea kudeatuko duen Programa.
- Beharrezkoa da Boluea mugatzea.
- Elbarriei sarbidea hobetzen ahalegintzea.

P.2.3. Itsasertzeko ingurumena babesteko, hobetzeko eta sustatzeko programa.

- Izenburuari zaintza eta kontrola hitzak gehitzea.
- Orain arte burututako egintzak finkatzea
- Mantenuko programarik dagoen ala ez argitzea.
- Tunel Boca eremuan dagoen korridorea babesteko programa.
- Gobela interesdun eremu gisa hartzea.
- Bideak, bidexkak eta bidezidorrak berreskuratzeko ahaleginak egitea.

C TALDEA :

- Egungo egoeraren analisisa egiteko beharrezkoa, abiapuntu gisa.
- Argazkiz eta bideoz lagunduriko kartografia egitea, bai eta landaretza garrantzitsuenaren inguruko ikerketa zehatza ere.
- Arestian esandakoarekin lotuta: Egitasmoak, batzuk premiazkoak eta beste batzuk, ordea, epe labur zein ertainean burutzekoak.
- Auzotarrekin arazoak, natura-eremuarekin elkarbizitza dela-eta. Adib: uholdeak
- Baso-berritze ikerketa. Inguruko udalak, Aldundia zein Eusko Jaurlaritza inplikatzeko, eta diru-laguntzak eskatzea.

- Alubioien arazoa. Hartu beharreko neurrien inguruko ikerketa: Dekantazio-eremuak, berauen mantenua eta erretiratzea (honek guztiak ikerketa ekonomiko bat ekarriko luke).
- Bolueko uraz gain, ibai-arroen inguruetako urak analizatzea (Gobelaraino)
- Herritarrei aurreko guztiaren berri ematea.
- Bioaniztasun Ikerketak. Aurretiazko informazioa eta ondorengo jarraipena; arrainen, hegaztien eta landaretzaren zentsua egitea, eta gizakiaren presentzia kontrolatzea.
- Nekazal jardueraren kalteen inguruko ikerketa eta giza-jardueren eragina.
- Ingurumen Ikasgela bat eratzea. Ez josi istinga panelez, soilik sarbideetan.
- Hondartzak eta Dunak: ekintzak urte guztian zehar burutu daitezela; etengabeko jarraipen bat egin, eta ez soilik sasoi jakin batean.
- Burutu beharreko ekintzak gehiago mugatzea- eta zehaztea eta hauek mantentzeko programa bat aurrera eramatea; hau guztia betetzen dela ziurtatzea.
- Bolue gisa bailara osoa hartzea, ibai-arroa barne.
- Hondartzak eta Dunak: Ekintzak urte guztian zehar burutzea; etengabeko jarraipena egitea, eta soilik urte-sasoi jakin batzuetan.

Talderen batek beste Estrategia-linearen baten aldeko eztabaida egin nahi izan bazuen ere, azken hauek ez ziren osoko bilkuran azaldu; beraz, Foroaren hurrengo bileran lantzeko geratu ziren.

Ingurumenaren Getxoko Udal-foroak bere osotasunean onartzen ditu taldeok eginiko ekarpenak eta 2. Estrategia-linea honen idazketa berri baten alde egiten du. Hona hemen datorren bileran eztabaidatuko den estrategia-linea honen nondik norakoa:

2. EL UDALEKO BALIO NATURALAK, BIOANIZTASUNA ETA PAISAIA BERE HORRETAN MANTENTZEA

P. 2.1. Interesdun Naturguneak babestu eta berreskuratzeko programa.

2.1.1. Udalean dauden interesdun ingurumen eta naturguneen kartografiak egitea, eta hauek babestu zein birsortzea.

2.2.2. Hegazti- eta animalia espezieen habitat naturalaren inguruko informazio-panelak jartzea; honek beraietaz gozatzeko aukera emango digu, natura-balioei kalterik egin gabe.

2.2.3. Natu-guneetara iristeko sarbide-sistemak hobetzea, baldin eta oraindik egin ez badira; naturgunean bertan ibiltzeko higikortasuna erregulatzea, eta zaintza zein kontrola ezartzea.

2.2.4. Udalaren Natura-balioen inguruko heziketa, ingurumen-hezkuntza eta zabalkundea herritarrei helarazteko jarduerak kontsolidatzea eta hedatzea.

2.2.5. Baso-berritze eta berroi-haneztatze lanetan “Ingurumena kudeatzeko irizpide jasangarriak” ezartzea; horretarako, inguruetako udalerriei, Aldundiari eta Eusko Jaurlaritzari diru-laguntzak eskatuko zaizkie.

2.2.6. Gune horietan dauden bioaniztasunari etengabeko jarraipen bat egitea; arrainen, hegaztien eta landaretzaren zentsua egin eta gizakiaren presentzia kontrolatzea.

P 2.2. Itsaso-ekosistemak babesteko, hobetzeko eta berreskuratzeko programa.

2.2.1. Ur-ekosistema guztietan ura analizatzea; horrela, bere eboluzioa eta hobekuntza jarraitu ahal izango dira.

2.2.2. Bidezidor, aisiarako gune, itsasertza, labar-aurreko, labar eta hondartzei buruz herritarrek egiten duten balorazioaren berri eduki.

2.2.3. Elbarriak gune horietara hel daitezen sarbideak hobetu.

P.2.3. Itsasertzeko ingurumena babesteko, hobetzeko eta berreskuratzeko programa.

2.3.1. Sopelako Udalaren elkarlanean ikertzea Barinetxe-La Salvaje hondartzako duna-ekosistemen berrezartze zein artatzea; honela, aldizkako jarraipen bat egin ahal izango da mantenurako egiten diren jardueren gainean.

ç

2.3.2. Azkorriko hondartzaren duna-ekosistemen berrezartze, artatze eta mantenuaren gaineko aldizkako jarraipena egin eta berori finkatzea.

2.3.3. Hondartza, labar eta itsasertzeko gainerako guneetan ibilgailuak gutxitzea; horretarako, garrantzitsua litzateke metro eta aparkalekuetatik abiatuta garraio publikoaren zerbitzua ezartzeko programa bat martxan jartzea.

2.3.4. Antzinako bide, bidexka eta bidezidorrak berreskuratzea, ahal den neurrian behintzat.

GALDERAK ETA ESKAERAK:

Azkenean, galdera eta eskaerak batzuk egin ziren. Hona hemen:

- Hurrengo bilerarako taldeen eraketa ez aldatzea proposatu zen
- Materiala eskura izateko beharrezana azaldu zen: mapak. Lurralde-plana, higikortasun plana-
- Adierazleak eguneratzearen inguruko beharrezanaren aurrean, epe laburrean egitekotan direla erantzun zen.
- Partaide batzuk beraien ardura adierazi zuten Hiri antolamendurako Plan Nagusiaren zein Getxoko udalerrira barneratzen duen Bilbo Metropolitiko Zatikako Lurralde planaren inguruan. Arazo honen aurrean zera erantzun zen: hitz egingo zela gai honetaz Foroaren hurrengo bileretako baten.
- Bukatzeko, partaideetako batek egindako interbentzioan adierazi zuen, jasangarritasunaren inguruan hitz egiteko nahi beste bilera egin arren, geure buruak aldatu ezean alferrik gabiltzala; Guk geuk aldatu beharra daukagu, gure bizitzeko filosofia, bestela, ez dugu aurrera egingo.

Getxo, 2004ko urriak 1